

Literatura

Argiaren alaba
Yolanda Arrieta

Autoedizioa, 2014



Jostuna klasikoak harilkatzen

Argiaren alaba izeneko liburuan Bizenta Mogel Elgezabal euskal idazlearen bizitzara hurbiltzeko proposamena egiten digu Yolanda Arrietak. Datu erreale-tatik abiatu eta fikzioaren bidez egiten da klasiko honen berrirakurketa. Amaia izekoak eta Mirari ilobak idazlearen inguruan egingo duten ikerketa pausoz pauso jarraituko digu testuan. Jostein Gaarderen *Sofiaren mundua* eredu hartuta XIX. mendeko idazlearen bizimodua aurkeztu eta girotzen du. Markinan hasi eta Bilboko Abandon amaituko da egile honen ibilbidearen eraikuntza, eta datu antropologiko-historiko-psikologiko-biografikoak josiko dituzte protagonistok idazle klasikoak bere testuinguruan irudikatzeko.

Egindako ikerketaz eta sortutako fikzioaz gain, idazle honen inguruan egindako “hitzaldi-tailer-performancea” aurkeztuko digu Arrietak liburuaren amaieran, 10 kutzarekin eta irudimena lagun, dekalogo bat osatu zuten ikasleek. Aipatutako kutxetan ikasleek, besteak beste, kriseilua, abarkak, luma, tinta, txirikorda, ziba, bisturia, errosarioa, sendaberrak eta bertso paperak aurkituko dituzte.

1782an jaio zen Mogel Azkoitian eta Bilboko Abandon hil 1854an. 1804an argitaratutako *Ipui onak* lanagatik da ezaguna, nahiz eta ez zen izan idatzi zuen bakarra. Arrietak *Argiaren alaba* deitu dio, Ilustrazioa eta arrazoia euskal tradizioarekin uztartu

nahi izan zituelako, “euskara eta ohitura onetan zentratu zela” esanez. Era berean, “ohiko ereduaren gainetik jokatzeko jakin zuen” Arrietaren hitzetan, eta “barne espazio propioa eraiki zuen bere garaiko kumea” izan zen.

Arrietaren ustetan bi izan ziren bere ekarpenak, bata “haurrak eta alfabetatu gabeak (nekazariak) euskaraz hezteko eta hazteko lehen material pedagogikoa sortu izana”, eta bestea, “euskararen kategoria altxatu izana ahozko txiste hutsetik papereko hizkuntza klasikoaren parera”. Honez gain, ondoren argitaratu ziren alegi bildumen erreferentzia izan zela diosku, eta euskal haur eta gazte literaturaren aitzindaria dela.

XIX. mendean ez zen ohikoa emakume idazleak egotea, eta horretaz kontziente izan zen Mogel, bere hitzurre gogoangarrian adierazi zuen bezala; eta Yolanda Arrietaren lan honi esker, bere bizitza nolakoa izan zen imajinatu dezakegu, ikerketa horren ondorioz jasotako datuak josi dizkigulako, *Jostoratza eta haria* lanean egin zuen antzera. Berak dioen moduan “tradizioa, historia bezalaxe, ezer izango bada, etenik gabe, astindu, aztertu eta berregin beharreko zerbaite bizia delako”. Hemen duzue bada, lehen euskal emakume idazlearengana fikzioaren bidez hurbiltzeko gonbitea. ■

Amaia Alvarez Uria



Liburu azoka

Santurtzin, maiatzaren 15etik 24ra Parke Zentralean.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!